


ERREZETA ELECTRONIKOAK BALIOA GALTZEN DU!



SENDAGAIK ARDURAZ ERABILTZEKO, ANTOLATU ZEURE BURUA

Errezeta elektronikoaren sisteman sartuta daude hartzeko esan dizuten sendagaiak, zuk zeuk farmazian hartzeko. Zure medikazio-pauta zuzen betetzeko pentsatuta dago. Horretarako, beharrezkoa da beti Norbanakoaren Osasun Txartela (NOT) aurkeztea.

Errezeta elektronikoak 'balioa galtzen du'

Preskripzioan esaten da egunean zenbat aldiz eta zenbat denbora hartu behar den tratamendua. Jarraibide horiek kontuan hartuta, errezeta elektronikoak egutegi bat antolatzen du:

- Sendagaia lehen aldiz sartzen badute errezetan, 10 egun dituzu jasotzeko. Epe horretan ez baduzu jasotzen, **errezetak balioa galduko** du eta farmazian ez dizute emango.
- Tratamenduan jarraitu behar baduzu, sendagaia farmazian har dezakezu ontzia bukatu baino 15 egun lehenagotik hasita eta bukatuko dela aurreikusitako eguna pasatu eta 60 egun igaro ondoren. Denbora gehiago pasatzen bada, **errezetak balioa galduko** du eta ez duzu sendagairik hartzen ahaliko farmazian.
- Tratamendua kronikoa bada, errezetak automatikoki **indarra galduko du urtebeteren ondoren**. Ez dago "bizi osorako" sendagairik. Beraz, zu artatzen zaituen medikuak erabakiko du zu kontsultara deitu edo ez, tratamendua berrikusteko, edo berrituko du, zu osasun etxera joan beharrik izan gabe.

**Gogoan izan,
zure farmazialariak
lagun zaitzake
medikazioarekin**

GOGOAN IZAN FARMAZIAN EZIN DUTE:

- **Sendagaia behar baino lehenago eman.** Medikuak agindutakoa baino sendagai gehiago hartu baduzu, sendagaien ontzia galdu baduzu edo nonahi ahaztuta utzi baduzu, botikariak EZIN dizu beste ontzi bat aurreratu. Osasun etxearekin harremanetan jarri behar da.
- **Ezin dizute sendagaia beste molde batean eman** (esaterako, konprimatuen/pilulen orde zorroak eman).
- **Sendagaiak errezetarik gabe eman,** sendagaiak hala agintzen duenean. Behin eta berriz emateko esaten badiozu, arauak hausteko esaten diozu.
- Sendagaiak ematea Norbanakoaren Osasun Txartela aurkeztu gabe.

- ✓ Ez ibili larri eta presaka, aldeztu aurretik programatu badezakezu. **Ez egon zain ontzia bukatu arte; zoaz lehenago farmaziara.** Zure medikazioaz arduratzen bazara, ez duzu beharrik gabeko kontsultarik izanen eta zure tratamenduaren jarraipena bermatuko duzu.
- ✓ **Eta oporretan joaten bazara, zer? Ez arduratu horretaz.** Espainiako edozein farmaziatan har ditzakezu sendagaiak. Izan ere, farmaziak konektatuta gaude.
- ✓ **Eska itzazu soilik behar dituzun sendagaiak.** Erabili behar ez dituzun sendagaiak etxean pilatzen badituzu, balioa galduko dute. Eta kontuan izan: sendagai horiek denok ordaintzen ditugu.
- ✓ **Osasun Karpeta Pertsonalean kontsultatu.** Karpetan daukazu zuretzat informazio garrantzitsua, baita errezetan sartu dizkizuten sendagaiak ere, dosia, sendagai bakoitza nola hartu eta farmazian noiz har ditzakezun.

